

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abenduaren 15ean

94 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- “Familia eta Komunitatea” aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Plantila Organikoa 1998ko azaroaren 24an (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 1997ko abenduaren 31n (14. or.).
- Lehiaketa publikorako deialdia, Iruñeko entzutegiaren eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzeko: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza teknika eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa (15. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

“Familia eta Komunitatea” aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Familia eta Komunitatea” aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Familia eta Komunitatea” aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Programaren deskribapena (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (4. or.).
- IV. Aurrekontuaren exekuzioa (4. or.).
- V. Jardueraren deskribapena (5. or.).
 - V.1. Oinarrizko osasun-laguntza (5. or.).
 - V.2. Etxez etxeko zerbitzu pertsonaletarako laguntzak (6. or.).
 - V.3. Elkarteei eta entitateei dirulaguntzak, ekipamendu txikietarako eta jarduerak sustatzeko (6. or.).
 - V.4. Bizibiderik gabeko familiei laguntzak (7. or.).
- VI. Ondorio eta gomendioak (9. or.).

NGOiko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako alegazioak (12. or.).

I. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Familia eta komunitatea” programa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari esleitu zitzaion;

erakunde autonomo hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren menpe dago.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, 1997an egin duen kudeaketan, hurrengo programak zituen:

	(milioitan)
	Aurrekontua
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	987
Haurrak eta gazteak	1.448
Adintsuak	2.615
Minusbaliatuak	2.702
Bergizarteratzea	274
Familia eta komunitatea	2.201
Pentsio ez-kontributiboak	2.661

Instituen programa guztietan unitate bera agertzen da arduradun: “Administrazio eta Giza Baliabideen Zerbitzua, Sektore Programen Zerbitzua eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Sektorearteko Programen Laguntzaren Zerbitzua”.

“Familia eta komunitatea” programak hurrengo nahi du:

- Foru komunitateko oinarrizko osasun-laguntza zerbitzuen funtzionamendua eta koordinazioa indartu eta bultzatu; gehienbat, oinarrizko udal zerbitzuak eta oinarrizko osasun-laguntzarako gizarte zerbitzuak.

- “Oinarrizko errenta” programa garatu.

Horretarako, hurrengo helburu eta jarduketak planteatu dira:

- Oinarrizko osasun-laguntzarako gizarte zerbitzuak garatzea bai kopuruari, bai kalitateari dago-kionean, laguntza tekniko eta programa berriak finantzatzuz.

- Komunitate programak eta prebentzio eta bergizarteratze programak ezartzei indarra ematea.

- Harrera zentroak indartzea, zentro horiei zereginak emanez larrialdian dauden eta beren ingurutik kanpo dauden pertsonetik (tratu txarra jasotako emakumeak, e.a.), hala nola, horiei ostatu ematea, eta baita orientabidea eta balorazioa ere.

- Familian eskuhartzeko programak garatzea, hain zuzen ere, arazo zehatzei aurre egiten dietenak.

- Gizarteratze programak martxan jartzea, pobreziaen aurkako eta gizarteratzeko programa abiarazteko, familia eta pertsona behartsuentzako oinarrizko errentaren garapenaren barne.

- Banan-banako aldizkako edo ezohiko laguntza ekonomikoen mailari eustea.

- Famili zamak dituzten eta beharrea dauden guraso bakarreko famili laguntzak sustatzea; nahi dena da pobreziaen jatorrian eragina izan.

- Partehartze organo gisa bultzatzea Oinarrizko Errentaren Jarraipenerako Batzordea.

Eta ondoko adierazleak hartu dira:

- Profesional kopurua.
- Profesionalen dibertsifikatzea.
- Sortutako talde tekniko kopurua.
- Ezarritako programa kopurua.
- Komunitate animazioa.
- Prebentzio eta gizarteratzea.
- Finantzatutako harrera zentro kopurua.
- Familian eskuhartzeko programa kopurua.
- Gizarteratze proiektu kopurua.
- Emaniko laguntza kopurua.

Programa horren kudeaketan eragina duten xedapen garrantzitsuenak ondokoak dira:

- 11/1987 Foru Dekretua, urtarrilaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean oinarrizko gizarte zerbitzuak arautzen dituena.

- 98/1989 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, aurrekoa aldatzen duena.

- Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak garatzeko urteroko deialdia.

- 94/1992 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, Gizarte Zerbitzu, Kirol eta Gazteria arloetako dirulaguntzak arautzen dituena.

- 134/1992 Foru Agindua, apirilaren 2koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza kontseilariak emana, gizarte zerbitzuen arloko jardueren

funtzionamendu, ekipamendu txiki eta sustapenerako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onesten dituena.

- 168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen arloan prestazioak eta norbakoentzako eta familiantzako laguntzak arautzen dituena.

- 169/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Oinarrizko Errenta jasotzen dutenak enpresa eta entitate publiko nahiz pribatuetan sartzeko lan kontraprestazioei buruzkoa.

- 170/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Oinarrizko Errentaren kontraprestazioen gainean, gizarte enplegu babestuaren modalitatean.

- 2/1997 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, 1997rako oinarrizko errentaren zenbatekoak gehitzen dituena.

- 13/1991 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Gizarte Zerbitzuen arloan prestazioak eta norbakoendako eta familiendako laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuaren 6. artikulua aldatzen duena.

Programak ez du aurrekontuko dirusarrerarik eta gastuak ondokoei dagozkie:

	Milioi pezetatan
Ohiko transferentziak	2.201
Kapital transferentziak	1
Guztira	2.202

II. HELBURUA

Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen arabera, Ganbarak 1998ko jarduketa planean sartu du aurrekontuko "Familia eta komunitatea" programaren fiskalizazioa, Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorretan agertzen zena, hain zuzen ere.

Lan honekin Kontuen Ganbarak ondoko helburu hauek lortu nahi ditu:

- Programaren exekuzioak 1997an eginiko jarduera zentzuz isladatzen duen egiaztatu, eta zehazki, egotzi behar zaizkion gastu eta dirusarrera guztiak jasotzen diren egiaztatu.

- Jarduera legezkotasun irizpideari jarraikiz egiten al den egiaztatu.

- Jarduera baloratu, hain zuzen ere, programa exekutatzeko eraginkortasunaren eta ekonomia-
ren ikuspuntutik.

Eginiko lanaren ondorio, txostenak programaren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak emanen ditu.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Aurreko helburuak kontutan hartuta, lanak arreta jarri du bai aplikatutako administrazio prozedurak aztertzen, bai programak 1997rako zuen aurrekontuaren exekuzioa aztertzen; eta horretarako, antolaketa, kontabilitatea eta barne kontrola aztertu eta ebaluatu ditu.

Aurrekontuaren exekuzioari buruzko lana ondoko aurrekontu-lerroak oinarri hartuz egin da:

	Kode ekonomikoa	Aurrekontua
Bizibiderik gabeko familia ugaritsuei laguntzak	4802	972
Etxean bertan ematen diren zerbitzuentzako laguntzak	4809	570
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	4600	545
Elkarte eta entitateei dirulaguntzak	4810	35
Guztira		2.122

Ikusten ahal denez, aurrekontu-lerro horiek programaren gastuaren % 96 egiten dute.

Azterketa hau Institutuaren 1997ko oroit-idazkiarekin osatu da eta baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Sailak eginiko ikerketekin, sail horri Nafarroako Pobreziaren aurkako Planaren jarduketak baloratzeko eskatu bai ziaion.

Programa horren eraginkortasuna eta ekonomia aztertzeko izan dugun oztopoa hauxe izan da:

programak definitu eta ezartzen dituen helburu eta adierazleek jartzen dituzten mugak. Muga horiek ia erabat eragozten dute irizpide horietan oinarritutako anilisia egitea. Hala ere, hein batean mugapen hori konpentsa daiteke Institutuak eskatutako lanekin.

Metodologiari dagokionean, Ganbarak erabili ohi dituen programak aplikatu dira. Programa horiek Ganberaren auditoretza gidan agertzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako auditoretza printzipioei eta arauei jarraituz garatu dira.

Txostenak sei atal ditu, hauexek hain zuzen ere: sarrera non programa adierazten baita, helburuak, norainokoa eta mugak, programaren aurrekontuaren exekuzioa, programaren jarduerak dituen ezaugarri nagusien deskribapena eta ondorio eta gomendioak.

Zelaiko lana maiatzean eta ekainean egin zen. Lan taldea auditoretza teknikari bi eta auditore bat izan dira; horiek, gainera, denbora guztian Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan dute.

Eskertu egin nahi dugu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko langileek eskainitako laguntza.

IV. AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

Hona hemen "Familia eta komunitatea" programaren aurrekontuaren exekuzioaren koadroa, klasifikazio ekonomikoaren arabera.

25. programa. Familia eta komunitatea.

25001 proiektua: Familia eta komunitatea	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aurrekontu exekutatua
Atzerrian eta baliabiderik gabe bizi diren nafarren egoera ikertzeko dirulaguntza	1.000.000	-1.000.000	0	0
Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako dirulaguntzak	971.987.000	112.300.000	1.084.287.000	1.077.107.608
Etxean bertan ematen diren zerbitzu pertsonalenzako laguntzak	570.000.000	75.000.000	645.000.000	623.175.155
Elbarritasun handikoak eta adintsuak dituzten familiei laguntzak	15.000.000	-14.959.000	41.000	0
Famili hezkuntzako programak	15.000.000	0	15.000.000	12.527.574
46/77 Amnistia Legeak kontuan hartu gabeko edo kanpoan utzitako presoen aldeko laguntzak	1.000.000	559.000	1.559.000	1.558.305
Elkarte eta entitateentzako dirulaguntzak	35.000.000	0	35.000.000	34.975.438
Etorकिन gizarteratzea bultzatzeko programak	25.000.000	0	25.000.000	25.000.000
25001 proiektua, guztira	1.633.987.000	171.900.000	1.805.887.000	1.774.344.080
25002 proiektua: oinarrizko osasun-laguntza				
Tuterako oinarrizko zentroan inbertsioak egiteko transferentziak	1.000.000	0	1.000.000	1.000.000
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	545.000.000	10.000.000	555.000.000	550.369.183
Tuterako Udalari transferitutako oinarrizko zentroaren funtzionamendu gastuak	21.722.000	0	21.722.000	21.414.174
25002 proiektua, guztira	567.722.000	10.000.000	577.722.000	572.783.357
25 programa, guztira	2.201.709.000	181.900.000	2.383.609.000	2.347.127.437

Lerro nagusien exekuzioa ondoko azpillerrotan banakatu da:

	Exekutatutako aurrekontua
32970 lerroa.	
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	
Programa orokorrak	140.489.184
Programa bereziak	409.879.999
Lerroa, guztira	550.369.183
32890 lerroa.	
Bizibiderik gabeko familientzako dirulaguntzak	
Laneratzea	42.288.092
Familia eta gizartean sartzea	50.726.023
Ezohiko laguntza	49.203.616
Oinarrizko errenta	457.190.728
Babestutako enplegu soziala	477.490.594
Laguntza espezializatua	208.555
Lerroa, guztira	1.077.107.608
32990 lerroa.	
Etxean bertan ematen diren laguntzak	
Etkez etxeko laguntza, Iruñean	272.069.711
Etkez etxeko laguntza, gainerakoan	351.105.444
Lerroa, guztira	623.175.155

V. JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Programa honetan eginiko jarduera hurrengo jarduketetan laburbil daiteke:

V.I. OINARRIZKO OSASUN-LAGUNTZA (OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK; EXEKUZIOA, 550 MILIOI)

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen duen Legeak ezartzen duenez, udalen eskumena da gizarte zerbitzuak ematea eta baita gizarteratze zerbitzuak ere; eskumen hori nahitaezkoa da 20.000 biztanlez gaindiko udaletan.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoak ezartzen duenez, Nafarroak eskumen osoa du gai honetan. Horrela, Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 Foru Legea onetsi zen; foru lege hori garatu zuten 11/1987 Foru Dekretuak eta hori aldatu zuen 98/1989 Foru Dekretuak.

Gai honi dagokionean, honako hau da esku-men banaketa:

- Nafarroako Gobernuak: legeak eta erregelamenduak emateko ahalmena. Planifikazio orokorra. Koordinazioa. Jarraipena, zaintza, kontrola eta ebaluaketa. Laguntza teknikoak.

- Toki entitateak: gizarte zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

Bestalde, eginkizunak honela bereizten dira: eginkizun orokorrak –oinarrizko gizarte zerbitzu guztienak– eta eginkizun bereziak, eremu bakoitzeko biztanleen ezaugarri sozialen arabera garatu beharko direnak, soilik. Azken horien artean lehentasuna dute etxean bertan ematen diren laguntzak, adopzioek eta famili harrerek.

Praktikan, hala ere, etxez etxeko laguntza, 1994tik hona, Foru Komunitate ia osoan jarri da; hala ere, aukerakoa denez eta hori jartzea toki entitateen esku dagoenez, bada ezberdintasunik Nafarroako eskualdeen artean.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuak bi modalitate ditu: oinarrizko gizarte zerbitzuek emaniko laguntza eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emanikoa.

Lurralde banaketari dagokionez, oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzaren lurraldea eta biztanleak egokitu egin zaizkio Nafarroa Osasun Eskualdeetan Banatzeari buruzko Foru Legeak ezarritako oinarrizko osasun barrutiei. Guztira 51 oinarrizko gizarte zerbitzu daude. Horietatik, 10 Iruñeari dagozkio; beste eskualde bakoitzari, berriz, oinarrizko gizarte zerbitzu bana dagokio, eta biztanle kopuruari begiratuta, gutxien dituenak 1.924 biztanle ditu (Izabak) eta gehien dituenak 26.857 (Tuterak).

Gizarte zerbitzu horien finantzaketa udal aurrekontuen kargura egiten da; hala ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, zerikusia duten udalekin eginiko hitzarmenen bidez, hurrengo finantzaketa ematen du:

- Jardunean hasi eta lehenengo bi urteetan, oinarrizko lan taldeak dituen langile gastuen ehuneko 75.

- Hirugarren urtetik aitzinera aipatu gastuen ehuneko 50.

Programa berezien finantzaketa aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko kontsignaziopean dago, eta gizarte beharren araberrako dirulaguntzetarako deiladi publikoaren bidez gauzatzen da.

Tutera eta Iruñeko udalek araubide berezia dute, 20.000 biztanle baino gehiago baitituzte.

Jarduera horiek aurrera eramateko, oinarrizko gizarte zerbitzuko langileen gastuak diruz lagundu ziren. Hona hemen:

Langileak	Kopurua
Gizarte langileak	81
Administrari laguntzaileak	38
Famili laguntzaileak	133
Gizarte-kultur eragileak	8
Hezitzaileak	8
Psikologoak	3
Ordenantzak	2
OLTak	2
Espedienteen arduraduna	1

Iturria: Oinarrizko Osasun Laguntzako Atala

V.2. ETXEZ ETXEKO ZERBITZU PERTSONALETARAKO LAGUNTZAK (EXEKUZIOA, 623 MILIOI)

Laguntza horien xedea da adintsua edo elbarritua etxean edukitzea, eta ahal den baldintza hoberenetan.

Iruñean, bada, etxeetan ordu beteko edo gehiagoko laguntza behar dutenei ematen zaie; Nafarroako gainerako tokietan, bi ordu eta erdi edo gehiago behar dutenei. Gehienez ere, eguneko bost ordu ematen dira. Beharra txikiagoa bada, etxez etxeko udal zerbitzuek emanen dute laguntza.

1997 urtean, 1.737 lagunek jaso zuten aipatutako laguntza. Horietako 913 Iruñekoak ziren, eta azken horietarik 455k bi edo ordu gutxiagoko laguntza jasotzen zuten.

Laguntzaren zergatiari dagokionean, 1.598 pertsonak 65 urte baino gehiago izateagatik jaso zuten laguntza; 139k, berriz, elbarriak izateagatik.

Laguntza, batez beste, urtean 358.000 pezeta izaten da.

V.3. ELKARTE ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK, EKIPAMENDU TXIKIETARAKO ETA JARDUERAK SUSTATZEKO (EXEKUZIOA, 35 MILIOI).

Prestazio hauen helburua da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin hitzarmenik ez duten gizarte zerbitzu, elkarte eta entitateei laguntza ematea eta horiek sustatzea.

Hiru gauzetarako ematen dira dirulaguntzak: funtzionamendu eta mantenimendurako; formazioa jolasa eta aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak sustatzeko; programa bereziak aurrera eramateko.

Gizarte zerbitzuen Entitate, Zerbitzu eta Zentroen Erregistroan sartuta dauden pertsona fisiko eta juridikoak izanen dira onuradunak.

1997n hurrengo dirulaguntzak eman ziren:

Entitatea/Elkartea	Aurrekontua
"Aralar" ludopata elkarte	350.000
Tuterako drogamenpekotasun elkarte	720.000
"El Camino" elkarte	300.000
"El Marinal de San Adrián" elkarte	225.000
"Analu" Nafarroako ludopata elkarte	350.000
Elikagai bankua	3.763.788
"Bidere" orientabide zentroa	1.577.760
Gaztelan	21.213.452
"Gizalan" elkarte (Creinet proiektua)	6.500.000
Guztira	35.000.000

V.4. BIZIBIDERIK GABEKO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK (EXEKUZIOA, 1077 MILIOI)

Hainbat laguntza kontzeptu sartu dira. Bi hauek dira horien arteko garrantzikoak: oinarritzko errenta eta babestutako enplegu soziala; izan ere, exekutatu den kopuruaren ehuneko 87a egiten dute.

V.4.1. Oinarritzko errenta.

Pertsona edo famili unitate bati oinarritzko beharrak betetzeko ematen zaion prestazio ekonomikoa da. 1997rako, laguntza hileko 42.350 pezeta izanen zela ezarri zen, eta kide bakoitzagatik 6.435 pezeta gehiago (eskatzailea kontutan hartu gabe); beti ere, muga, 66.630 pezetatan ezarri zen.

Gehieneko iraupena 12 hilabetekoa da, eta hori luzatzeko aukera ere bada.

Oinarritzko errentari kendu egiten zaizkio famili unitatearen dirusarrerak, inondikoak direla ere.

Laguntza jasotzen dutenak behartuta daude Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak proposatutako formazio edo enplegu jarduerak egitera.

1997 urtean, 1.646 pertsonak jaso zituzten laguntza horiek.

V.4.2. Babestutako enplegu soziala.

Babestutako enplegu soziala honetan datza: entitateek, gehienetan udal eta mankomunitateek, oinarritzko errenta hartzaileak eta bergizarteratze-ko kalifikatuta dauden pertsonak kontratatzen dituzte guztiontzako mesedegarri diren lanetarako. Horrekin batera, prestakuntzarako jarduerak

osagarriak izaten dira. Kontratu gehienak lanaldi laburrekoak izaten dira, kontratatutako pertsonak izaten dituzten arazoengatik.

Dirulaguntza, partehartzaile bakoitzeko Lanbidearteo Gutxieneko Soldataren ehuneko 140 izaten da, eta kontratazio gastuen % 25era hel daiteke zenbait daturen arabera, hala nola, partehartzaile kopurua, sustapen jarduetarako gastuak eta laguntzarako langile gastuak.

1997 urtean, 477 milioi banatu ziren 31 entitateen artean. Entitate horiek 399 pertsona kontratatu zituzten, enplegu sozial babestu sistemaren bidez.

V.4.3. Familia eta gizartean sartzeko laguntzak

Famili egoerari eusteko laguntzak dira eta baita errotze sozial eta geografikoari ere; alegia, pertsonak zentroetan sartzeko ekiditeko, pertsona horiek dituzten zailtasunen funtsa baliabide ekonomikoa ez izatea denean. Hilero, Lanbidearteo Gutxieneko Soldataren ehuneko 150 emanen da, gutxienez. Laguntza horiek emateko irizpideak ez daude araututa, ezta laguntzak zer epetarako diren ere. Laguntzarik gehienak psikiatrikoan egon direnentzat dira, etxebizitzak eta zereginetako egoitzak izan ditzaten.

Laguntza horien azken bi urtetako exekuzioa hurrengoan izan da:

	Zenbatekoa (milioitan)	Laguntza jasotzen dutenak
1996	30	89
1997	51	193

1997 urtean 206 laguntza eskatu ziren. Horietatik 193 eman eta 13 ukatu ziren.

Lerro honetan jasotzen dira baita ere kontzeptu beragatik gizarteratze bulegoak kudeatzen dituen laguntzak, zeinak beste aurrekontu programa batekoak baitira. 18 eta 25 urte bitarteko gazteei emandako oinarritzko errentaren prestazioak ere sartu dira lerro honetan; izan ere, ez dira oinarritzko errentaren lerroan sartu, onuradunak 25 urte baino gutxiago izateagatik eta famili unitaterik ez osatzeagatik.

V.4.4. Ezohizko laguntzak

Banakako laguntzak dira eta aldizka jaso beharrean aldi bakar batean jasotzen dira. Horien helburua baliabide ezak eragindako egoerak konpontzea da.

Laguntza horien azken bi urtetako exekuzioa hurrengoa izan da:

	Zenbatekoa (milioitan)	Laguntza jasotzen dutenak
1996	25	174
1997	49	231

Handitzearen arrazoi nagusia zera izan da: 1997an, laguntza horiek kontatzerakoan, Asociación Navarra sin Fronteras-i emandako 23 milioiak ere kontatu zirela. Elkarre horrek laguntza ematen die antzinako umezurtz-etxe ko minusbaliatuei eta baita tutoretzapekoei ere.

Kudeatzaileek eginiko txostenaren arabera, 1997an emaniko ezohiko laguntzak 53 milioi izan ziren. Beraz, kontabilizitatutakoarekin alderatuta 4 milioi gehiago.


393 eskaera izan ziren, eta horietarik 162 ukatu eta 231 eman ziren. Duten izaerarengatik laguntza horiek zailak dira arautzen, eta eskaera

horiek ebazterakoan subjektotasunak pisu handia du.

Azken batean, bada, norbaitek arazoak ditue-nean, bere egoerak dituen berezitasunak kontutan hartuta, neurririk egokienarekin laguntzen zaio; eta ez da kontutan hartzen zein programatakoak diren laguntza horiek. Horrela, kasu batzuetan, Institutuak emaniko laguntzak dauden programa eta proiektuen artean nahasten dira. Adibidez, bada bergizarteratze programa bat, eta, aldi berean, badira bergizarteratzeko laguntzak familia eta komunitatearen programan.

Horregatik guztiagatik, eta lehen esan bezala, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren programa guztietan, horien kudeaketaren ardura-dun unitate bera agertzen da: Administrazio eta Giza Baliabideen Zerbitzua, Sektore Programen Zerbitzua eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Sektorearteko Programen Laguntzaren Zerbitzua.

Institutuak hurrengo organigrama du dituen laguntza guztiak kudeatzeko:



Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zerbitzuko eta sektorearteko programetako langileria honako hau da (gehienbat, horiek kudeatzen dituzte aztertutako laguntzak):

	Kopurua
Zerbitzuko zuzendaria	1
Ataleko burua	2
Bulegoko burua	3
Gizarte langileak	12
Hezitzaileak	2
Erdi mailako teknikariak	2
Erizaintzan diplomatuak	3
Administrariak	11
Guztira	36

VI. ONDORIO ETA GOMENDIOAK

1go. 1997an emaniko dirulaguntza edo laguntzak jasotzen ditu programaren exekuzioak; baina ez, ordea, programarenak diren gainerako gastuak, hala nola, langileriarenak eta bai ohiko ondasunak, bai zerbitzuak erostearenak.

2gn. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak duen irizpidea da laguntza horiek ez direla dirulaguntzak, eta, beraz, ez daudela dirulaguntzei buruzko 8/97 Foru Legearen menpe. Horren ondorioz, lege horrek jarraitzen dituen printzipioak ez dira beti estu-estu betetzen.

3gn. Orokorrean, esan daiteke dirulaguntzak eta laguntzak indarrean dagoen arautegiaren arabera ematen direla. Hala ere, antzeman dugu zenbait kasutan ez dela eskatzen baldintza guztiak betetzea edo sistema orokorrean aldaketak ematen direla eta beste zenbait gorabehera ere izaten direla.

Horri dagokionean, kontutan eduki behar da laguntzak gizarteko talderik behartsuenetara zuzentzen direla eta, sarritan, eskatzaileentzat zaila izaten dela zenbait baldintza betetzea.

Antzemandako salbuspenetan ondokoak azpimarratu ditugu:

a) Oinarrizko errenta.

Zer udalerritan bizi den, han herrilurrik baldin bada hura eskatu beharrik ez da exijitzen, ezta nafartasun zibila edo Nafarroan bizitzen 10 urte eman izana ere; bai, ordea, Nafarroan bizi izatea.

13/91 Foru Dekretuak aurreikusitakoaren babesean egiten dira salbuespen horiek. Salbuespen-arrazoiak aurreikustea zaila denez, oso gaitza da halako malgutasun eta subjektibotasun bat

ekiditea arauak salbuespenak aplikatzeko garaian.

b) Etxez etxeko laguntzak.

Ez dira eskatzen ondoko agiriak: famili liburua, erroldatze agiria eta horren antzintasuna, ondasunen aitortpena, katastroaren agiria eta bizikidetasun agiria. Halaber, laguntzaren titularrak sorosteko pertsonaren bat kontratatzeke laguntzaren aplikazioari jarraipena egiten zaionik ere ez dago erasota.

1998tik aurrera, etxez etxeko laguntzaren ardura Iruñeko Udalak izanen du, eman egin baitzaio. Horren ondorioz, ezberdintasunak izan dira etxez etxeko laguntzak Iruñeko hiritarrei aplikatzeko, udalak balorazio irizpide ezberdinak erabiltzen baititu.

c) Oinarrizko gizarte zerbitzuentzako dirulaguntzak.

Sei eskualde aztertu ondoren, hurrengo ondorioak atera ditugu:

Errealitatean, ez da ezberdintasunik programa orokor eta berezien artean, etxez etxeko laguntza programa berezitat hartzen baita, eta, Lodosan ezik, Nafarroa osoan baitago ezarria. Gainerako programa bereziak ez daude sakonki definituak, horietan ez baitira ezartzen lortu nahi diren helburuak, helburu horiek lortzeko metodologia eta aurreikusitako jarduerak. Ez dago irizpide objektiborik argi azaltzen duenik zein diren diruz lagundu beharreko programa bereziak.

Burlatan eta Iruñean, programa berezi bairan laguntzen dira diruz programa orokorretako langileriari dagozkion gastuak.

1996an Burlatak jaso zuen dirulaguntzari buruz, udal horrek ez du ziurtatu emandako dirulaguntzarekin (1,7 milioi pezeta) urte osorako hiru famili langile kontratatatu zituenik.

Iruñeko Udalak 10 auzo unitate ditu eta 97-9-15etik hona etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzen du, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak horren ardura eman ondoren. Iruñeko oinarrizko gizarte zerbitzuek duten funtzionamendu eta antolakuntza gainerako gizarte zerbitzuek dutenaren oso bestelakoa da.

Tuterako oinarrizko gizarte zerbitzuak araubide berezia du, 147/91 eta 145/91 Foru Dekretuek ezarritakoa. Foru dekretu horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak urtero egiten dituen transferentziak ezartzen dituzte; hain zuzen ere, gizarte laguntza eta etxez etxeko laguntza finantzatzeko transferentziak.

d) Entitate eta elkarteentzako dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauek emateko 134/1992 Foru Aginduan ezarritako prozedura jarraitzen da; foru agindu hori dirulaguntzei buruzko 8/1997 Foru Legea baino lehenagokoa da. Hala ere, kontutan hartuta objektuaren zabaltasuna, diruz lagundu daitekeen eremua eta balorazio irizpideak, subjektibotasun handia izaten da dirulaguntza hauek ematerakoan.

Zenbait kasutan, laguntzaren zenbatekoa jarduerak duen aurrekontuaren ia ehuneko 100era heltzen da, eta kontrola gastuen ziurtagiriak aurkeztuz egiten da.

e) Babestutako enplegu soziala eta laneratze programetan, ia toki entitateek soilik ematen dute laguntza, eta kasik ez dago enpresa pribaturik, ez baitute eskatu.

4gn. Programan erabilitako adierazleek ez digute laguntzen programaren kudeaketaren eraginkortasunaren eta ekonomiaren balorazio orokorra egiten. Hala ere, zenbait alderdi balora daitezke bai eginiko lanaren ondorioz, bai Nafarroako Unibertsitate Publikoari eskatutako lanaren ondorioz.

a) 1997an, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren erregistroan 33.067 dokumentu sartu ziren eta hortik irten, berriz, 42.063 dokumentu irten ziren. Kontutan izan behar da dauden baliabide informatikoak eskasak direla eta administrari lanpostu batzuetan aldaketak izaten direla, eta horrek dokumentu horien kudeaketa zaildu egiten duela.

Ez dago pertsona edo famili unitate bakoitzeko historial bakarra, eta horrek ez du errazten espedienteen kudeaketa.

b) Oinarrizko errentari buruzko espedienteak, aztertutako laginaren arabera, 82 egunetan ebazten dira, batez beste. Epe hori gehiegizkoa da, kontutan hartzen badugu behar larrian dauden pertsonen buruzkoak direla. Hala ere, kasurik larrieneztat bada zenbait bide espedienteak arinago izapidatzeko.

c) Etxez etxeko laguntza zerbitzuari buruzko espedienteak hilabeteko epean kudeatzen dira.

d) Orain, etxez etxeko laguntza emateko beste baremo batzuk aplikatzen direnez, lehendik emandako zenbait laguntza berriz aztertu dira; horren ondorioz, berraztertutako laguntzen % 24 bertan behera utzi dira.

e) Oinarrizko gizarte zerbitzuek, Iruñekoak salbu, 1996ko ekitaldiari buruzko datuak igorri dizkigute (Ganbara honek ez ditu datu horiek egiaz-

tatu); datu horiek kontutan hartuta eta oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak duen egoera ezberdina kontutan hartuta, hurrengo ondorioztatzen da:

- Toki entitateen kargura egiten den finantziazioa % 28 da, eta ehuneko 0 eta 57 artean ibiltzen da.

- Tasa bidezko finantziazioa % 8 da, eta ehuneko 0 eta 26 artean ibiltzen da.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ematen duen dirulaguntza portzentaia % 64 da, eta ehuneko 38 eta 100 artean ibiltzen da.

f) Oinarrizko gizarte zerbitzuen kostuak, zerbitzuek igorritako datuen arabera, ondoko gorabeherak ditu.

(pezetatan)

	Batez- bestekoa	Gehie- nezkoa	Gutxie- nezkoa
Biztanle/urte kostua	1.265	3.764	552
Erabiltzaile/urte kostua	218.836	542.934	120.428
Ordu/kostua	2.520	5.468	1.702

5gn. Institutuak eskatutako azterlanetatik zenbait alderdi gatazkatsu ondoriozta daiteke, hala nola, ondokoak:

- "Eskaera lagundua" izenekoak, non laguntza lor dezakeen pertsona gizarte langileen esku dagoen. Horrek gizarte langilea kontraesaneko egoeran jartzen du: aldi berean da informatzaile, aholkulari eta fiskalizatzaile.

- Nahasteak edo zailtasunak zenbait baldintza betetzen direla ziurtatzerakoan, bereziki diru-sarrerei buruzkoak.

- Erregistro aniztasuna; horrela, informazio ezberdina egon daiteke horietan.

- Laguntzak berritzeak dakarren lan eskerga.

6gn. Aipatutako azterlanak zenbait ondorio atera zituen pobrezia larrian daudenei ematen zaien oinarrizko errentak duen eraginari buruz; horietarik ondokoak azpimarratuko ditugu: "Familien egoerak oso gutxi aldatzen dira". "Oinarrizko errentaren eraginez, pobrezia maila % 30 txikiagotzen da". "Oinarrizko errentak pobrezia larrian daudenengan duen eragin estrukturala ez da nahikoa, ezta gutxiagorik ere, pertsona horiek bizi baldintza horiek argi eta garbi gaitzuten ahal izan ditzaten".

7gn. Neurriak jarri zirenetik denbora gutxi pasa bada ere, eginiko azterketatik ondorioztatu dena zera da: laguntzei esker zuten egoera gaitzutez programatik programa uzten dutenak lehenengo bi urte-

tan egiten dute, gehienbat; beraz, gainerakoak laguntzak jasotzen jarraituko dute etengabe.

8gn. Azken finean, esan dezakegu ezarritako neurrien eraginak baloratzeko barne araurik ez egotea konpentsatu egiten dela, nolabait, pobrezia-aren aurkako planean jasotako azterlanekin; azterlan horiek, balorazioa egin ondoren, proposamenak egiten dituzte etorkizunerako.

Hori guztiagatik, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren laguntzak Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen arabera kudeatu, eta, beharrezkoa bada, aztertu horietako zein laguntzak ez duten dirulaguntza izaera eta, beraz, lege bidez, salbuetsi.*

- *Aztertu eta argitu egokia al den programa bat baino gehiago izatea, horiek ematen dituzten laguntzak gainjartzen direnean eta programa horien helburuak ere berdintsuak direnean. Programa horiek izaten jarraitzekotan, programa horiek jaso egin behar dituzte programa horiei egotzi behar zaizkien gastu guztiak, baita langile eta funtzionamenduari dagozkienak ere.*

Programak, edozein kasutan, eginiko kudeaketa baloratzeko ahalbidetuko duten helburu eta adierazleak beharko ditu izan, eta ez jarduera administratibozko adierazleak soilik.

- *Baldintza eskagarriak egokitu, eta benetan eskatu daitezkeenak eta eskatuko direnak ezarri.*

- *Laguntzak emateko irizpideak ahal den objektiboan bihurtu.*

- *Saiatu balorazio ekonomikoak egiteko jarraitzen diren irizpideak benetako egoeretara egokitu daitezzen. eta ez erraz justifikagarriak direnetara soilik.*

- *Onuradunei etorkizunerako betebeharrak ezartzen dizkieten dirulaguntzen jarraipena egitea, betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.*

- *Etxez etxeko laguntzari dagokionean, Institutuaren irizpideak eta Iruñeko Udalaren irizpideak koordinatu. Honetaz ari garela, komenigarria litzateke hitzarmenak egitea gizarte zerbitzu gaietan bi administrazio horien arteko harremanak arautzeko hitzarmenak egitea.*

- *Arauk berraztertu eta, horren ondorioz, oinarritzko gizarte zerbitzuen finantziarioa aldatu programa orokor nahiz berezietara jarraiki. Eta hori, programa bereziak zein diren jakinarazteko irizpide objektiboak ez direlako finkatu, eta programa berezietako batzuk eskualde guztietan ematen dira.*

- *Drogamenpekotasunari buruzko Foru Planari dagokionean, Osasun Departamentuarekin koordinazioa areagotu, bi departamentuek eramatean baitute aurrera programa hori.*

- *Arau gisa zera ezarri: entitateek, baldin eta dirulaguntza jakin bat jasotzen badute edo dirulaguntzek, beren aurrekontuetan ehuneko jakin bat egiten badute, auditoretzak aurkeztu beharko dituzte eta ez bakarrik gastuen justifikazio soilak. Behar bada, kasu horietarako hitzarmenak ezarri.*

- *Ahal den neurrian eta Lan Departamentuarekin elkarlanean, entitate pribatuen parte hartzea bultzatu bai babestutako enplegu sozial, bai lanez aritze programetan.*

- *Espedienteen mekanizazioa areagotu eta laguntza jasotzen duen pertsona bakoitzeko espediente bakarra izan dadin saiatu. Honi gagozkiola, esan beharra dago azterlan bat egiten hasi dela Lehendakaritza Departamentuko Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusia, administrazio kontuetan Institutua modernizatzen.*

Hobetze horren ondorioz, espedienteak arinago ebatziko dira.

- *Etxez etxeko laguntza zaharrak berriz aztertu, orain beste baremo batzuk aplikatzen direnez.*

- *Bazterkeriaren aurkako Planak emandako gomendioak baloratu eta, hala behar bada, aplikatu.*

- *Ezarritako neurrien eraginkortasuna eta ekonomia baloratzeko eredu bat ezarri.*

Lan honen laburpen gisa, azpimarratu egin nahi dugu egungo egoera epealdi baten amaiera dela, nolabait; eta epealdi horren ezaugarri nagusia zera izan dela: Nafarroan, oinarritzko eskualdeak sortuz eta laguntzarako zenbait neurri ezarri, gizarte laguntza sare bat ezarri eta garatu izana.

Gaur egun, esan daiteke prozesu hori amaitu dela eta, beraz, beharrezkoa da datorren epealdiari begira, gauzak berriz aztertzea, horren beharra duten herritar guztiei gizarte laguntza bermatzearen.

Bestalde, komenigarria litzateke etorkizunean zenbait pertsonak bizimodu duina izateko, agian laguntza horiek behar izatearen zergatia ezagutzea.

Horrela, kontutan hartuta programa horietan dauden gehienak gizartetik deserrotutako pertsonak direla, kultur maila baxuaren eraginez gehienbat, garrantzi handia du nolabaiteko hezkuntza maila izatea. Beraz, komenigarria dirudi, Hezkuntza Departamentuarekin batera aitzin-neurriak

ezartzea zenbait gazteentzat; hain zuzen ere, duten eskola- eta gizarte-egoera ikusita, etorkizun-ean laguntzak behar izan ditzaketela uste denean.

Lan hau egiteko ardura izan duen Jesús Muruzábal Lerga jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 14an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Honekin doazkizu, Kontuen Ganbarak "Familia eta komunitatea" aurrekontu programari buruz eginko behin-behineko txostenari Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egin dizkion alegazioak.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Zuzendari kudeatzailea: José María Jiménez Bolea

ALEGAZIOAK, KONTUEN GANBARAK "FAMILIA ETA KOMUNITATEA" AURREKONTU PROGRAMARI BURUZ EGINIKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUAK EGIN DIZKIONAK.

1) V.4.3. puntuari buruz (Familia eta gizartean sartzeko laguntzak), egokia da, duten izaerengatik arautzen zailak diren laguntzat jotzea.

2) VI. Kapituluari dagokionean (Ondorio eta gomendioak), zera esan behar da: urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretuaren arabera, ondokoak direla oinarrizko gizarte zerbitzu guztien eginkizun orokorrak:

a) Pertsoneri, familiei eta gizarte taldeei gizarte zerbitzu gaietan dituzten eskubide, betebehar eta baliabideez informazioa, aholkua eta orientabidea eman.

b) Egungo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ematen dituen laguntza guztiak, tramitatzen ari direnean, baloratu eta horiei buruzko txostena eman; halaber, laguntza horien jarraipena egin.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua babes sistemetako datu baseetara (Ogasuna, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua...) sar daitekeen neurrian, eskasagoa izanen da oinarrizko gizarte zerbitzuetako gizarte langileen fiskalizatzaile lana.

3) Azken ondorioei dagokienean, zera: datoren epealdiari begira, gauzak berriz aztertu, eta beharra duten herritar guztiei gizarte laguntza bermatzeko helburuari buruz, ondokoa gehitu behar da: helburu hori lortzeko hain zuzen ere, amaitze-ar dauden zenbait azterlan eta ikerketa ari dira egiten. Hauexek dira:

– Gizarte zerbitzuen berrantolaketa (oinarrizko osasun-laguntza)

– Etxez etxeko Laguntza Programaren ebaluazioa.

– Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planaren ebaluazioa.

4. Azken lerroaldeari buruz, non Hezkuntza Departamentuarekin batera arriskuan dauden gazteentzat aitzin-neurriak ezartzea gomendatzen den, zera esan behar da: Familia, Haur eta Gazteriarentzako Atalak eta Hezkuntza Departamentuak batera egiten dutela lan, eta Oinarrizko Osasun Laguntzak aitzin-neurri programak eramaten dituela aurrera, oinarrizko gizarte zerbitzuen esku-hartzearen bidez eta guraso-eskolekin elkarlanean.

Nafarroako Parlamentuko Plantila Organikoa 1998ko azaroaren 24an

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1go. Nafarroako Parlamentuak 1998ko azaroaren 24an duen Plantila Organikoa onestea:

a) Funtzionarioak:

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklusibitatea	Batera-ezintasuna	Lanpostua	Mailako Osagarria
IDAZKARITZA NAGUSIA							
Legelari Nagusia	1	A	X	55		75	
Mahaiko eta Bozeramileen Batzarreko idazkaria							
Administrazio burua	1	C	X			30	12
Administraria	1	C				20	12
ZERBITZU JURIDIKOAK							
Legelariak	3	A		55		30	
ZERBITZU NAGUSIAK							
Burua, Teknikari diplomatua	1	B		55		10	
Teknikari diplomatua	1	B		55			
Teknikari informatikoa	1	B			35		
Administrariak (*)	4	C				20	12
Ofizial Teknikaria	1	C		55			12
Gelazain Nagusia							
Gelazain Nagusia	1	D				25	15
Gelazainak	9	D				15	15
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA							
Prentsa burua	1	A		55		40	
Itzultzaileak	3	A		55			
Administraria (*)	1	C				20	12
Transkriptoreak (*)	5	C				15	12
Protokolo Burutza							
Administrazio burua	1	C				30	12
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA							
Artxibo eta Liburutegi Burua	1	A		55		10	
Liburutegi laguntzailea eta Dokumentalista	1	B			35		
Administraria (*)	1	C				20	12
KONTUHARTZAILTZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERB.							
Kontuhartzailtza Burua	1	B		55		25	
Administrariak	2	C				20	12

b) Aldi baterako langileak.

Kopurua	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakaritzako Kabinete Burua	X
1	Lehendakaritzako Idazkaria	X
1	Bestelako Kargu Hautatuen Idazkaria	X

(*) Administrari 1 Euskarazko tituluarekin.

(*) Transkriptore 1 Euskarazko tituluarekin.

(*) Administraria Euskarazko tituluarekin.

2gn. Plantila Organikoa (Erabaki honen 1. atala) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 1997ko abenduaren 31n

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go. 1997ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan ziren funtzionarioen zerrenda onestea:

Izen-abizenak	Taldea	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
RAZQUIN LIZARRAGA, M. M.	A	4	Legelari Nagusia	Jardunean
Mahaiko eta Bozeramaileen				
Batzarreko Idazkaritza				
ALFARO ERVITI, M.C.	C	5	Administrazio burua	Jardunean
ZERBITZU JURIDIKOAK				
BERMEJO GARDE, M.	A	4	Legelaria	Zerb. Bereziak
DIEZ LAGO, P.	A	4	Legelaria	Jardunean
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	3	Legelaria	Zerb. Bereziak
ZERBITZU NAGUSIAK				
CERRO PAUL, F.J. DEL	B	5	Zerb. Nag. Burua	Jardunean
LARRAÑETA LIZARRONDO, M.V.	B	7	Teknikari diplomatua	Jardunean
VACANTE	B		Teknikari informatikoa	
ARDAIZ EGÜES, A.	C	3	Administraria	Zerb. Bereziak
BEAR SANZ, C.	C	3	Administraria	Jardunean
DIAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	5	Administraria	Jardunean
ECHEVERRIA LECUMBERRI, L.	C	2	Administraria	Jardunean
EQUIZA MAQUIRRIAIN, J.	C	3	Ofizial teknikaria	Jardunean
Gelazain Nagusia				
ANSORENA URRIZA, A.	D	3	Gelazain Nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M.A.	D	3	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M.A.	D	3	Gelazaina	Jardunean
CARLOS RAMIREZ, J.M.	D	3	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, F.	D	2	Gelazaina	Jardunean
MARTINEZ ORDUÑA, M.J.	D	2	Gelazaina	Jardunean
MONEO MARTINEZ, M.I.	D	2	Gelazaina	Jardunean
TORRES IBARROLA, J.M.	D	3	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARIN, O.	D	3	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	3	Gelazaina	Jardunean
PRENTSA, ARGITALPEN				
ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTINEZ, C.J.	A	3	Prentsa Burua	Jardunean
ALONSO FOURCADE, J.R.	A	2	Itzultzailea	Ezedentzia
AMORRORTU AMARICA, A.	A	3	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, M.	A	1	Itzultzailea	Jardunean
ARANAZ MARTI, C.	C	2	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPION, A.I.	C	4	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, F.	C	3	Transkriptorea	Zerb. Bereziak

Izen-abizenak	Taldea	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
SAENZ GARCIA, M.C.	C	3	Transkriptorea	Zerb. Bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	2	Transkriptorea	Jardunean
Protokolo Burutza				
HUALDE ARBIZU, N.	C	7	Administrazio burua	Jardunean
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTUN PEREZ DE CIRIZA, L.J.	A	4	Artxibo eta Lib. Burua	Jardunean
VACANTE	B		Liburutegiko laguntzailea eta Dokumentalista	
MITXELENA ENBIL, I.A.	C	2	Administraria	Jardunean
KONTUHARTZAILAZIA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERB.				
ZULET RECALDE, F.	B	3	Kontuhartzailatza Burua	Jardunean
FERNANDEZ GELOS, M.V.	C	4	Administraria	Jardunean
LEZAUN JUANIZ, M.	C	3	Administraria	Zerb. Bereziak

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko abenduaren 1ean

La Presidenta: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lehiaketa publikorako deialdia, Iruñeko entzutegiaren eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzeko: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza teknikoa eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an eginiko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikorako dei egitea Iruñeko entzutegiaren eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzeko: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza teknikoa eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.

– Kontratuaren xedea: Iruñeko entzutegiaren eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzea: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza teknikoa eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.

– Esleipena egiteko modu eta prozedura: lehiaketa, prozedura irekia.

– Kontratuaren iraupena: eraikina zaharberritzeko obren iraupena; hau da, 22 hilabete, aurreikusitakoaren arabera.

– Kontratuaren gehienezko aurrekontua: hogeitazazpi milioi pezeta (BEZ barne), honela banatuak:

• 25.000.000,- pta. (BEZ barne), zuzendaritza teknikoarengatik;

• 2.000.000,- pta. (BEZ barne), segurtasunaren eta osasunaren koordinazioarengatik.

– Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio baldintza partikularren orrian esaten direnak. Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak izan beharko dute edota konpulsatuak bai notario bidez, bai administrazio bidez.

– Proposamenak aurkezteko lekua eta epea: Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, 1999ko urtarrilaren 11ko hamalauak baino lehen.

– Proposamen tekniko eta ekonomikoak jendaurrean irekitzea: 1999ko urtarrilaren 19an eta 29an, hurrenez hurren, hamabietan, Nafarroako

Parlamentuko lokaletan (Arrieta kalea, 12 - E-31002 Iruña).

– Administrazio baldintzen orria eta gainerako agiriak (proiektua) lizitatzailen esku daude Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Orokorrean (Arrieta kalea, 12 - E-31002 Iruña). Han kontsultatu ahal izanen dituzte, lanegunetan, 09:00etatik 14:00etara.

Nafarroako Parlamentua:

- Telefonoa: 948 209 209.
- Telekopiadora (Fax): 948 228 444.
- Posta elektronikoa: registro@parlamentonavarra.es

Iruñean, 1998ko abenduaren 2an

Lehendakaria: María Dolores Eguren Apeste-guía

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------